

Ebazpena: R023/2025

Espedientea: E003/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren bidez zehaztu nahi baita zeinek duen eskumena ordainarazteko **ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBILEKO FUNTZIONARIOEN MUTUALITATEAK** (aurrerantzean, MUFACE; IFZ: XXXXXXXXXX1) 2018ko ekitaldian zenbait jasotzaileri ordaindutako prestazioei dagozkien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak (529,87 eurokoak). Gatazka hori 3/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- 2021eko urriaren 25ean, GFAk idazki bat bidali zion ZAEARI, eskatzeko 103.889,24 euroko transferentzia egiteko, MUFACEk 2018ko ekitaldian ohiko bizilekua Gipuzkoan duten zergadunei ordaindutako prestazioen gainean egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (aurrerantzean, PFEZ) atxikipenengatik eta konturako sarrerengatik.

2.- ZAEAk, 2022ko irailaren 23an GFari jakinarazitako autolikidazioa zuzentzeko ebazpen-proposamenaren bidez, partzialki onartu zuen eskaera (103.359,37 euro).

Aurrekoari dagokionez, aipatutako proposamenean, ZAEAk ukatu egin zuen lau jasotzailearen ordainsarien gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei zegokien itzulketa (529,87 eurokoa), egiaztatu baitzuen ZAEAk (zergadun bat) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritzak (hiru zergadun) agertzen zirela beren zerbitzuak eman zituzten organismotzat. ZAEAREN iritziz, bi entitate horiek ez ziren organismo autonomo edo entitate publiko enpresarial, Estatuko merkataritza-sozietate, Estatuan adskribatutako partzuergo, Estatuko fundazio, transferitu gabeko unibertsitate publiko edo EAEko lurraldean dauden portuen portu-agintaritza. Beraz, ZAEAREN iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoa aplikatu beharko litzateke, eta, ondorioz, atxikipenak Estatuko Administrazioari legozkioke.

3.- 2022ko azaroaren 21ean, GFAk inhibizio-errekerimendua jakinarazi zion ZAEARI, arestian aipatutako atxikipenei eta konturako sarrerei lotuta eztabaidatu zen eskumenari buruzkoa.

4.- ZAEAk ez zion erantzun inhibizio-errekerimenduari, eta, beraz, isilbidez baztertu zuen, bere eskumena berronetiz, ez zuelako erantzun hilabeteko epean, zeina horretarako ematen baitu Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1

artikuluak, zeina onartu baitzen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez.

5.- 2023ko urtarrilaren 18an, GFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, MUFACE entitateak 2018ko ekitaldian zenbait jasotzaileri ordaindutako prestazioei egindako atxikipenak ordainarazteko eskumenaren inguruan. Atxikipen horiek prozedura arruntaren arabera izapidetu dira, eta, beraz, izapidea bete da, ZAEAk alegazioak egin ditzan eta dagozkion frogak eta dokumentuak proposatu ditzan, eta espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko arauak.

Zehazteko zein den administrazio eskuduna pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren lan-etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, aintzat hartu behar da Ekonomia Itunaren 7. artikuluan xedatutakoa, 2017ko abenduaren 30etik aurrera indarrean dagoen idazketan:

«Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte

aurreikuspeneko entitateetatik datozenak, eta enpresen eta beste entitate batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

(...)

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko organismo autonomoetako eta entitate publiko enpresarialetako funtzionarioei eta enplegatuei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetakoei, Estatuan adskribatutako partzuergoetakoei, Estatuko fundazioetakoei, transferitu gabeko unibertsitate publikoetakoei eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintarizetakoei ere».

3.- Arabako Foru Aldundiaren jarrera.

GFAk uste du MUFACE entitate ordaintzailea, ZAEA eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza, entitate enplegatzailleak diren aldetik, entitate-mota hauen parte direla: «organismo autonomoak edo entitate publiko enpresarialak, Estatuko merkataritza-sozietateak, Estatuan adskribatutako partzuergoak, Estatuko fundazioak, transferitu gabeko unibertsitate publikoak, EAEko lurraldean dauden portuen

portu-agintaritzak»; eta ez «Estatuko Administrazioarenak»; hau da, «Administrazio Instituzionalaren» parte direla, eta ez «Estatuko Administrazio Orokorrarena».

Bere irizpidea defendatzeko, GFAk hauek nabarmentzen ditu: Arbitraje Batzorde honen urriaren 6ko 77/2022 Ebazpena, zergapeko berari eta gatazkaren xede den gai berari buruzkoa, nahiz eta 2016ko ekitaldiari buruzkoa izan (15/2021 gatazka); eta Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko 617/2018 epaia, 10/2015 gatazkan Arbitraje Batzordearen 4/2017 Ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa ebazten duena (MUFACeri lotua). Aldi berean, GFAk babes hartu du Arbitraje Batzorde honen aurreko ebazpenetan (76/2022, urriaren 6koa; 137/2022, urriaren 20koa; 168/2022, abenduaren 15koa; eta 3/2025, urtarrilaren 29koa) eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian (1268/2023 AGE, urriaren 16koa —ECLI:ES:TS:2023:4215—; eta 1313/2023 AGE, urriaren 24koa —ECLI:TS:2023:4304—), baita 2023ko abenduaren 1eko Dekretuan ere, zeinaren bidez Auzitegi Gorenak amaitutzat jo baitzuen 168/2022 Ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa, ZAEAk atzera egin zuelako.

Horrela, GFAk defendatzen du Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoa (salbuespena) zentzu hertsian aplikatu behar zaiola Estatuko Administrazio Orokorrari, eta, beraz, GFAREN aurrean ordaindu beharko liratekeela sektore publiko instituzionalaren parte diren entitate enplegatzailen langileen ordainsari pasiboei dagozkien atxikipenak, Ekonomia Itunaren 7.Bat.b) artikuluan ezarritako lotunea aplikatuta, gatazka honetan langile horiek Gipuzkoan bizi baitira.

4.- ZAEAREN jarrera.

Alde batetik, ZAEAk uste du Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko epaia (GFAk alegatu duena) ezin dela hartu doktrina errepikatutzat, ez baita jurisprudentzia Kode Zibilaren 1.6 artikuluan xedatutakoaren efektuetarako. Hori dela eta, ZAEAREN ustez, epai horren aplikazioa MUFACE entitatara mugatu beharko litzateke, eta ez litzateke zabalduko Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua bigarren paragrafoan katalogatutako organismoen izaera ez duten Estatuko beste pertsona juridiko-publiko batzuen kasuetara.

Bestalde, ZAEAk adierazi du ezen, Ekonomia Itunean, legegileak «Estatua» edo «Estatuko Administrazioa» esapideak erabiltzen dituenean, aipatzen dituela Estatua edo Estatuko Administrazioa aipatzeko, eta ez Estatuko Administrazio Orokorra aipatzeko. Hala, Ekonomia Itunak xedatzen du Estatuko Administrazioari dagozkiola «Estatuko Administrazio Orokorren» eta «Estatuko Administrazio Instituzionalaren» enplegatuek jasotako ordainsarien atxikipenak, 7.Bi artikulua bigarren paragrafoan berariaz jasotzen diren salbuespenak izan ezik.

Testuinguru eta gatazka honetan, ZAEAk nabarmendu du Ekonomia Itunaren erreformaren garrantzia,, Ekonomia Ituna aldatzen duen 10/2017 Legearen bitartez gauzatua. Erreforma horrek zabaldu egiten du salbuespenaren salbuespenean sartutako entitateen zerrenda, iritsi gabe Estatuko Administrazio Instituzionala osatzen duten Estatuko pertsona juridiko-publiko guztietara. Horren arabera, ulertzen du ZAEA eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza 7.Bi artikulua bigarren

paragrafoan ezarritako salbuespenetik kanpo geratuko liratekeela eta Itunaren 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoaren salbuespenean babestuko liratekeela. Horretarako, kontuan hartu du zer idazketa dagoen indarrean gatazkaren xederako .

5.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordearen ebazpenetan dago ebatzita zer eskumen duten Estatuko (Lurralde) Administrazioak eta Estatuko Administrazio Instituzionalak funtzionarioei eta lan-kontratudun edo administrazio-kontratudun enplegatuei ordainketa aktiboengatik nahiz pasiboengatik egindako atxikipenak ordainarazteko, alarguntasun- eta zurtasun-ordainsariak barne; besteak beste, ebazpen hauetan: 15/2016 (24/2014 gatazkan emandakoa), 4/2017 (10/2015 gatazka), 76/2022 (38/2020 gatazka), 77/2022 (15/2021 gatazka), 137/2022 (36/2018 gatazka), eta berriki emandako 3/2025 ebazpenak (61/2022 gatazka; 2025eko urtarrilaren 29koa), eta osorik errepikatutzat ematen ditugu.

Hala, Arbitraje Batzorde honen ustez, funtzionarioen eta enplegatu publikoen atxikipenak ordainarazteko eskumena honako eskema honen inguruan egituratzen da:

- a) Arau orokorrak aukera ematen du ondorioztatzeko ezen, prestazio pasiboak direnean, jasotzailearen bizilekua dela atxikipenen ordainarazpen-eskumena zehazten duen lotunea , eta lana ematen den lekua, berriz, prestazio aktiboen atxikipenatarako lotunea.

b) Arau orokorrak ez bezala, salbuespen bakarra ezartzen da Estatuko administrazioak Estatuko funtzionarioei eta lan-kontratudun edo administrazio-kontratudun enplegatuei ordaindutako ordainsari aktibo zein pasiboei dagozkien atxikipenetarako; atxikipen horiek, nolanahi ere, Estatuko (Lurralde) Administrazioari egozten zaizkio.

Arbitraje Batzordeak behin eta berriz adierazi du bere ebazpenetan ezen Ekonomia Itunak ez duela jasotzen eskudantziarik EAErentzat bere administrazioak bere funtzionarioei eta enplegatu publikoei emandako ordainsarien ondoriozko atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez. Horrek indartu egiten du Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua lehengo paragrafoan jasotako arauaren salbuespenezko izaera, eta areagotu egiten du zehazki eta zorrozki interpretatu beharra.

Eta, azkenik, salbuespenari salbuespen bat ezartzen zaio Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua bigarren paragrafoan, eta xedatzen da aurreko salbuespena ez dela aplikagarria izango, eta, beraz, arau orokorra aplikatu ahal izango zaiela, funtzionarioak eta lan-kontratudun edo administrazio-kontratudun enplegatuak izanik, Estatuko organismo publiko jakin batzuetakoak izan diren jasotzaileei:

- 2017ko abenduaren 30era arte indarrean egon den idazkeran: Organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak.

Arbitraje Batzordeak bere garaian ulertu zuen ezen, Ekonomia Ituna bakarrik zegokienean organismo autonomoei eta entitate publiko enpresarialeiei, bere barnean biltzen zituela Estatuko Administrazio Instituzionala osatzen zuten ente guztiak.

- Ondoren, 2017ko abenduaren 30etik aurrera, adiera horri honako ente hauek gehitu zitzaizkion: «Estatuko merkataritza-sozietateak, Estatuan adskribatutako partzuergoak, Estatuko fundazioak, transferitu gabeko unibertsitate publikoak, EAEko lurraldean dauden portuen portu-agintaritzak».

Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua idatzera berriari lotuta:

- Nabarmenezkoa da Ekonomia Ituna aldatzeko 10/2017 Legeak ez zuela aldatu 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoa; beraz, «Estatuko Administrazioa» kontzeptuak ez zuen izan aldaketarik.
- Aipatutako 10/2017 Legearen Zioen Azalpenak ezartzen duenez: «Eguneratu egin da, baita ere, 7.Bi artikuluan jasotako araua Estatuaren sektore publikoko funtzionarioei eta enplegatuei emandako ordainsariei dagozkien atxikipenen diru-sarrerari buruz».

2018tik egindako atxikipenei lotuta, 137/2022 Ebazpenak adostu zuen 10/2017 Legeak aldatu zuela Ekonomia Ituna, egokitzeko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren

urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84. artikulua emandako Estatuko Administrazio Instituzionala osatzen duten enteen sailkapen berrira.

Hala, Itunaren aldaketan, itundutako testuari soilik «eguneratu» zitzaion aipatutako 40/2015 Legean estatuko sektore publikorako jasotako sailkapen berria, baina ez ziren «berritu» edo «ordezkatu» sartuta zeuden entitateak.

- Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluen bigarren paragrafoan espresuki jasotako organismoek ia osorik osatzen dute Estatuko Administrazio Instituzionaleko enteen sailkapen berria (40/2015 Legearen 84. artikulua emandakoa). Sailkapen horretatik kanpo geratzen dira nortasun juridikorik gabeko funtsak eta Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako portu-agintaritzek bestelako administrazio-agintaritzak independenteak, haiek ia ez baitaude ezarrita lurralde historikoetan.
- Arbitraje Batzordeak 15/2016 eta 4/2017 ebazpenetan jada zehaztu zuenez, nahiz eta ebazpen horiek izan aipatutako 10/2017 Legea indarrean jarri aurreko idazketari buruzkoak, «esparru orokorretik salbuetsita dauden organismo gehienak oso bereziak dira, eta horregatik izan dute banakako tratamendua Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean, eta horregatik gehien-gehienak ez daude ezarrita Euskal

Autonomia Erkidegoaren lurraldean. Hain bereziak izaki, ondorio hau atera dezakegu: salbuespen horrek ezin du justifikatu Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak egin nahi duen interpretazioa, zeren Ekonomia Itunaren 7. Bi artikuluaaren bigarren paragrafoak ezin baitu izan beste xederik, ez bada zerbitzuak ematen diren tokiaren lotunearekin lotzea Administrazio Instituzionala osatzen duten organismo publiko guztiek ordaintzen dituzten lan-etekinengatiko atxikipenak».

Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko (ECLI:ES:TS:2018:1398), 2023ko urriaren 16ko (ECLI:ES:TS:2023:4215) eta 2023ko urriaren 24ko (ECLI:ES:TS:2023:4304) epaiek, halaber, jurisprudentzia irmoa eta baketsua sortu zuten, eta, hurrenez hurren, 4/2017, 76/2022 eta 137/2022 ebazpenak berretsi zituzten.

Beraz, Arbitraje Batzorde honek uste du doktrina irmo eta errepikatu bat dagoela, gatazka honi *mutatis mutandis* aplikatu dakiokeena, eta Auzitegi Gorenak berronetsi egin du 2018ko apirilaren 17ko epaian. Doktrina berronesteko, Auzitegi Gorenaren epaiek (1.268/2023, 2023ko urriaren 16koa, eta 1.313/2023, 2023ko urriaren 24koa) berretsi egin zuten 2018ko apirilaren 17ko epaian ateratako ondorioak zabaldu egin zirela Estatuko Administrazio Instituzionaleko beste edozein entitatetara, eta ezarri zuten Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoan jasotako ente gisa katalogatu ez izanaren beharrezko ondorioak ez lukeela igorriko Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluaaren lehenengo

paragrafoaren araura, baizik eta 7.Bat artikuluaaren tokiko arau (*lex loci*) orokorrera.

MUFACE eta ZAEA organismoei eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritzari dagokienez:

- 77/2022 Ebazpenak, oinarritzat hartuta 4/2017 Ebazpena –Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko epaiak berretsia–, xedatu zuen MUFACE organismo autonomo bat dela Ekonomia Itunaren 7. artikuluan ezarritako efektuetarako, eta, beraz, 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoaren araua aplikatu behar zaiola.
- Auzitegi Gorenak 2023ko urriaren 24ko epaian berretsitako 137/2022 Ebazpenak hau zehaztu zuen: «(...), nolanahi ere, 40/2015 Legearen jatorrizko idazkerak emandako entitate-zerrendaren barruan, ZAEA modu baketsuan sartuko litzateke, bere berezitasunak gorabehera, organismo autonomoen sailkapenean».
- 40/2015 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak hau ezartzen du: «Entitate kudeatzaileei, zerbitzu erkideei eta legearen arabera Gizarte Segurantzaren Administrazioa osatzen duten beste organismo edo entitate batzuei aplikatu beharko zaie lege honetan organismo autonomoei buruz ezarrita dagoena, hurrengo zenbakian xedatutakoa alde batera utzita».

Eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean integratzen den

lurralde-organo bat denez, organo horri ematen zaion tratamendu bera aplikatu beharko litzaioke, eta, beraz, organismo autonomotzat hartu beharko litzateke; Auzitegi Gorenak hala berretsi zuen 617/2018 epaian.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiak duela atxikipen hauek ordainarazteko eskumena: ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBILEKO FUNTZIONARIOEN MUTUALITATEAK 2018ko ekitaldian egindako atxikipenak Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi ziren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzian eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritzan zerbitzuak eman zituzten funtzionario edo enplegatuei pentsio eta hartzeko pasiboak dagozkien errentengatik ordaindutako zenbatekoen gainean.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBILEKO FUNTZIONARIOEN MUTUALITATEari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.